



# Lurzoruaren kutsadura

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.

## MATERIALAK

- ◆ Bi iragaztontzi.
- ◆ Bi ontzi.
- ◆ Neurriak dituen ontzia.

## HELBURUA

- Lurzoruaren kutsadura arazoaz jabetzea.

**ARIKETA BI** fasetan egingo dugu:

### Lehenengo fasea: ur zikinarekiko esperientua

Gure ikastetxeko edo herriko bi lur lagin hartuko ditugu (bietako bat, hondar lurraena). Bi ontzien ahoan, iragaztontziak ipiniko ditugu eta, horien gainean, hartutako laginak.

Bestalde, neurriak seinalatuta dauzkan ontzi batean, ur zikina jasoko dugu —harrikoa egiteko erabilitako xaboiaren hondarrekiko edo etxean erabilitako olioarekin nahastutako ura, akuarela zintatutako ura...—.

Orain, iragaztontzi bakoitzetik ur kantitate bera iragazi, ontzi bakoitzaren oinarrian dagoen kantitatea neurtu, eta bi lur motetan geratu diren zikinkeria kantitateak konparatuko ditugu.

Saiatu galdera hauei erantzuten:

- Bi laginetako zeinek zurgatu du zikinkeria gehien?
- Zer gertatuko da lurzoruak zurgatu duen zikinkeria horrekiko?
- Beste zerbait zikintzeko arriskurik badago?

### Bigarren aldia: ur garbiarekiko esperientua

Oraingoan, ur garbia botako dugu bi laginen gainera (euria bailitzan botako dugu). Erkatu iragazitakoa.

- Nola dago orain ura? Bota duguna bezain garbi dago?
- Nora doaz lurrazpiko ur zikinak?

